

Sindikatuak EH Bildu eta SUMAR alderdiei kongresuan emendakina aurkezteko eskatu diete, sektore publikoko soldata eta enplegua EAEn negoziatu daitezten

Estatuko azken hauteskundeetan EAEn ordezkariak lortu zuten alderdi politiko guztiei sindikatuak egindako gonbidapenaren ondorioz egin dira bilerak. Gainerako alderdi politikoek gonbidapena ez onartzea edo erantzun ere ez egitea erabaki dute

Gaur, Bilbon, ELA, LAB, CCOO, STEILAS eta ESK sindikatuak deitutako aldeko bilerak egin dira, Madrilgo Diputatuen Kongresurako deitutako azken hauteskundeetan EAEn ordezkariak lortu zuten alderdi politikoekin. EH Bilduko eta SUMAReko ordezkariak parte hartu dute aldeko bileretan. EAJ-PNVk gonbidapenari uko eginez erantzun duen bitartean, PODEMOS, PP eta PSEk erantzun ere ez dute egin.

Bilera horietan, sindikatuak EAEn sektore publikoko azken greba-egunetik hartutako erabakiei eta egoerari buruzko irakurketa helarazi diete. Gainera, sindikatuak proposamen bat aurkeztu diete bi alderdi politikoekin. Madrilgo Diputatuen kongresuan zuzenketa edo emendakina bat aurkezteko gonbitea luzatu diete. Emendakina onartuz gero, gure herrialdean euskal sektore publikoko 150.000 langile baino gehiagoren enplegua eta soldata hemen erabakitzea ahalbidetuko luke.

Sindikatuak EH Bildu eta SUMAR alderdiei eskatu diete euren botoak Madrilen erabil ditzatela sektore publikoko langileen lan-baldintzak hemen negoziatu ahal izateko. Hamarkada bat baino gehiago da Madrilek, aurrekontu legeen edo antzeko legeen bidez, esparru publikoko sektore guztietako soldaten eta enpleguaren arloko negoziazio kolektiboari betoa jartzen diola. Beto hori normalizatuta ez geratzeko edota indartzeko, SUMAREk kasu honetan egin duen bezala, eskatu diete sindikatuak bi alderdi politikoekin. Autogobernua defendatzeko eta beraien botoak erabiltzeko eskatu diete, bereziki oso baliotsuak diren une honetan, gure sektore publikoaren soldata eta enplegu-beharrak hemen negoziatzeko, 80ko eta 90eko hamarkadetan egiten zen bezala. Borondate politikoa badago, posible da.

Bestalde, sindikatuak erabaki dute, bilerara etortzeko gonbidapenari uko egin dioten alderdiei, zuzenketa bidaliko dietela. Eta emendakinarekin batera, alderdi politiko hauekin biltzeko borondatea berretsi dute. Nahi duten formatoan eta lekuan biltzeko borondatea, helburu argi batekin, alderdi politiko horiek euskal sektore publikoko lan-baldintzak eta enplegua gure herrian erabakitzeko aldarrikapena bere egin dezaten eta beraien botoak ere erabili ditzatela autogobernua defendatzeko eta betoarekin amaitzeko.

Azkenik, sindikatuak elkarretaratzeak egingo dituzte EUDELen aurrean, 10:30ean, eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean, 11:30ean, maiatzaren 27an, euskal erakundeei eskatzeko Espainiako Gobernuaren azpiordezkariak huts gisa funtzionatzeari utz diezaiotela, beren eskumenak erabil ditzatela, zerbitzu publikoak indartu ditzatela, pribatizazioak alde batera utz ditzatela, enplegu publikoa sor eta finka dezatela eta euskal herritarrei kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak bermatzen dizkieten langile publikoen lan-baldintzak hobetu ditzatela.

Euskal Herrian 2024ko maiatzaren 20an

